

JOSE ANTONIO LOIDI

FARMACIA

DROGUERIA Y PERFUMERIA

Paseo de Colón, 93

Teléf. 367

IRUN, en 55-10-16

Tovar jaunari

Agur;

Azkeneko "Boletín RSVAP"-en, K. Bouda eta D. Baumgartl jaunen "Nombres vascos de las plantas" argitaratu dezutela jakin det; eta lan bikaina dala ere bai.

Nere euskal-zaletasunarengatik batetik eta nere sendakaigintzagatik bestetik, oso kilikagarri zait liburu ori.

Biotzez eskertuko nizuke, ikastetxe nagusi orten, neri ale bat bihurtzeko aginduko ba'zenuke. Berak esango didate zenbat eta nola ordaindu bear dedan.

Zure lanak gogoz irakurtzen ditut. Euskaldunok aizkide ontzat zaitugu. Milla esker onengatik eta baita gaur eskatzen dizudan mesede onengatik ere.

Gipuzkoa guziko erri erdaldunduagotik, agur.

*Loidi J.A.*



VNIVERSIDAD  
DE SALAMANCA

GREDO.S.U.S.A.L.E.S